

ANIZTASUN FUNTZIONALA- LA DUTEN SEME-ALABEN SEXUALITATEA

Gure semeak autismoaren inguruko nahasmendu bat du. 3 urte inguru zituela diagnostikatu zutenean hamaika beldur jai ziztaizkidan biztzen zehar sortuko ziren zailtasunei begira: autonomia lortuko ahal zuen, noraino izango zen gai hitz egiteko, lagunak egiteko, ikasteko, lan egiteko, bere kabuz gauzak egiteko; baina ez zitzaidan burutik pasa ere bere sexualitatea bizi ahal izateko zailtasunik izango ote zuen edo ez, beharra izango ote zuen edo ez, eta abar. Egia esan, garai hartan, hitz egiteko gaitasuna garatzeko ahaleginekin eta nik neuk onartu behar izan nituen bame-ikasketei aurre egitearekin banuen nahiko lan.

Egun, baditu 13 urte eta edozein gazte neurotipikok bezala, nerabezaroan murgilduta dago bete-betean. Bere berezitasunekin bai, baina nerabe, onerako eta txarrerako. Eta bere nerabetasunak ez du sexualitatea kanpo uzten.

Aniztasun funtzionaladun pertsonak umeak bezala tratatu ohi ditugu. Eta umeak asexuatuak dira. Hori hala bada, ez dugu inoiz onartuko pertsona hauen sexurako beharra beste edozein pertsonak duenaren maila berekoa dela, eta beraien garapen osorako beste hainbat zerbitzu espezializatu beharko direla onartzen badugu, sexualitateari dagokionean ez da ezberdina izango eta horrela onartu beharko luke gizarte osoak, bai norbanakoek eta bai erakundeek ere. Sexua edozein pertsona helduren garapenerako dimentsio ezinbestekoa da eta, gainontzeko arloen garapenerako eta integrazioarako baliabideak beharrezkoak direla onartzen badugu, sexu-garapenerako ere bai, ez da?

Gure semeak, nerabezaroaren batera, sexualitatea garatu du, intimitatea behar du, sexurako grina erakusten du modu natural eta araugabetu batean. Hau nabaria egin den arte, izaretan orban zuriak azaltzen hasi ez diren arte, ez zait burutik pasa sexualitateari ere arreta jarri beharko gero.

Eta, orain, behar hauei erantzun bat ematera



behartuak izan garenean, ez dugu tresnarik.

Bere garapean osoan zehar, jaioberritik gaur arte, bizitzaren arlo guztietan, autonomia lortu dezan ahalegintzen ibili gara, bere laguntzaile izaten ahalegindu gara, prestatu gara, irakurri eta ikasi dugu, eguneroko egoeren hausnarketa egiten, adituen aholkua jasotzen; tresnak eta baliabideak eskaini zaizkigu arlo hau edo bestean eragiteko, gaitasunak areagotzeko, pertsona "normal" bezala hobetzeko, araura gerturatzeko. eta, sexualitatea zer?

Ez al da bakoitzaren nortasuna osatzeko ezinbestekoa? Ez al da egia heldu izateko gure sexualitatea garatu, ikasi, orekatu behar dugula? Autismoa baduzu, down sindromea baduzu, antzeko beste edozein nahasmendu baduzu ere, zure gorputzak bere sexualitate-tasa exijituko dizu halaberharrez.

Hasi da elkarteetan eta profesionalen artean dimentsio hau garatzeko beharra aipatzen. Hasi da, agian, familietan ere, poliki-poliki sexualitatea garatzeko laguntza eskatzen, baina oraindik ere erakundeek, profesional gehienek, familia ia denek, ez dute beharra

ikusi nahi. Eta ikusten denean, badirudi. Beldurra diogu, tabu bihurtzen dugu, ezkutatu eta isilarazten dugu.

Baina zeri diogu beldurra zehazki? Arriskuak ikusten ditugu, agian. Eta ez diogu pertsonak bezala jasoko duten plazerari arretarik jartzen. Pentsatzen dugu ez direla ugaltzeko gai izango, eta gai badira, guraso izateko arriskua dago. Ezin badute bere buruaren ardura hartu, zer gertatuko litzateke guraso badira? Ene!

Sexualitatearen ikuspuntu atzerakoiena aplikatzen dugu. Ia denok onartu dugu dagoeneko sexualitatearen funtzio nagusia ez dela ugalketa, plazera, poza eta garapen-pertsonala baizik.

Eta azken finean, nire semearen arazoa, eta berea delako nirea ere, bere sexualitatearen garapenerako ez dugula tresnarik eta ez dakigula non eskuratu ditzakegun.

Nola irakatsiko diot gure semeari masturbatzen, adibidez?

Baina gehiago, nola azalduko diot zer egin dezakeen naturala delako, eta poza emango diolako, eta zer ezin duen egin, gizarteak onartzen ez duelako edo, larriagoa dena, gainontzeko pertsonak mindu ditzakeelako?

Ez nago prest pelikula porno baten bitartez azaltzera. Horiek erakusten dutena da hain zuzen ikasi behar ez duena, nire ustetan. Eta horretarako profesionalik ez badago, nik azaldu beharko diot zuzenean nola egin behar duen zer? Ba agian bai.

Gure kasuan, autismoaz ari naiz, ez dakigu inoiz sexua inorekin egiteko beharra edukiko duen. Agian nahikoa izango zaio bakardadean plazera lortzearekin. Baina, agian entzun duzue azken urteetan, ez da egia autismoa duten pertsonak ez dutela besteekin harremanak sortzeko interesik. Gure semearen kasuan behintzat horrela da. Besteenganako gerturatzea oso modu berezian egiten du, eta horregatik errefusatu izateko aukera asko du, beti, edozein giza-harreman motan. Pentsa sexuari buruz ari bagara. Baina gogoia, izan, badu.

Eta honetan ere, hasi zen duela urte eta piko edo bere atsegite eta gogoak espresatzen. Eta, honetan ere, beste edozein arlotan bezala, bere jarrerek eta espresatzeko moduek, ez datoz bat arauak inposatzen

duenarekin. Desioari dagokionean, erabat askea da, berdin atsegin ditu neskak ala mutilak, batzuetan neska bat, hurrengoan mutil bat. Inongo arau heteronormatibori eutsi gabe.

Ziur naiz askotan gertatzen dela hau aniztasun funtzional mentala duten pertsonekin: zenbat eta pisu gutxiago eduki arauak, hainbat eta heteroarautik independenteago, gero eta zaletasun-espresio irekiagoak.

Gure semeak ez ditu gizonak edo emakumeak atsegin. Gure semeak pertsona batzuk bai eta beste batzuk ez atsegin ditu. Desioari dagokionean, beste edozein giza_harremanetan bezala.

Azken finean, gauza da: gure kasuan, nik onartzen dut bere sexualitatea, naturaltasunez erantzuten saiatzen naiz, baina aholkuak eman behar badizkiot, irakasle izan behar badut, nik ere behar dut aholkua, zalantza pila bat baitut bere ezaugarriekin sexualitate gozagarri eta errespetagarri bat lortzeko moduaren inguruan. Non lortuko dut aholku hori.

Eta are gehiago, zenbat atsekabe ekarriko dio beste pertsonak desiratzea gehien gehienetan ez baitu jakingo nola espresatu, eta jakitekotan ere, ezezkua jasotzeko aukera %99,99999koak badira? Nola bideratuko dugu hori?

Eta, harago, inoiz berarekin sexu-harreman bat partekatu nahi duen norbait aurkitzen badu, nola jakingo du nola portatu behar duen? Nola jakingo du bere burua babesten eta ondokoa ez mintzen?

Ez dut uste guzti hori kudeatzeko gai izan daitekeenik aurre-prestakuntzari gabe. Eta horretarako, profesionalak beharrezkoak dira. Eta profesionalak egoera egokian lan egin dezaten, erakundeen eta gizartearen babesa eta berme osoa behar dute.

Nik ez dut gure semea eta bera bezalakoak diren pertsona guztiak bizi asexuatu batera kondenatu.

Nola egingo dugu, denok, hori gertatu ez dadin?

Aintzane Muguruza Mendarte

@aintzane mug

Gehitu Elkarteko koordinatzailea